# AURKEZPENA

Maiatza gero eta gertuago dugun honetan, gure **Argazkilaritza Maiatzean**-eko edizio berri bat aurkeztu nahi dizuegu Eibartik, zuekin gertaera partekatzeko asmoz.

Hemendik animatu nahi dizuegu **Jose Benito Ruiz** natura argazkilariak emango duen **"Konposizioari buruzko hizketak" Tailerrean** parte hartzera; berau erakusketa iraunkor batekin eta "Paisajes del mar" bere azken liburuaren aurkezpenarekin lagunduta dator. Urtero moduan, tailerra doanekoa bada ere, aurretik izena eman behar da.

**Izena emateko epea martxoaren 30ean zabalduko da eta argazkilaritza@deporeibar.com helbidera e-maila bidaliz egin daiteke.**

Guztira**, sei Erakusketa** aurkeztuko ditugu, herriko hainbat puntutan banatuta. **Jose Benito Ruiz**en erakusketak *"only raw"* premisari jarraituz naturan bilatu eta aurkitutako irudi garbiak eskaintzen dizkigu. Kubako ikuspuntu bi eskainiko digute **Julian Ochoa** eta **Santos Moreno Villar** izen handiko argazkilariak. Eta **Xavier Ferrer Chust**-ek Poloniako Grabarkako Santutegiraino eramango gaitu.

Erakusketa kolektiboek Argazkilaritza Elkarteen Euskal Federazioak antolatutako "lehiaketetako lehiaketen", ahu da, **Argizaiola Sarietako** argazkiak aurkezten dizkigute. Horrekin batera, bere lanak erakusteko aurten hiru areto eta Untzaga plaza osoa beharko dituen **Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldea**k norantza begiratzen duen ikusteko aukera izango dugu.

Gainera, **Argazki estudioa** ezarriko dugu **kalean** eta gonbidatu nahi dizuegu, aldi berean, ohiko **Argazki Ralli**an parte hartzera.

---

# PRESENTACIÓN

Se acerca el mes de mayo y queremos presentaros y compartir desde Eibar otra edición de nuestro **mayo fotográfico-argazkilaritza maiatzean**

Animamos a que participéis en el **Taller "Diálogos sobre Composición",** impartido por el fotógrafo de naturaleza **José Benito Ruiz**, que se acompaña de una exposición permanente y de la presentación de su último libro "Paisajes del mar". Como todos los años, la asistencia es gratuita con inscripción previa.

**El plazo de inscripciones se abre el 30 de marzo, enviando un e-mail a argazkilaritza@deporeibar.com.**

En total presentamos **seis Exposiciones** repartidas por distintos puntos de la ciudad. La muestra de **Jose Benito Ruiz**, que busca y encuentra imágenes puras de la naturaleza bajo la premisa "only raw". Dos visiones de Cuba por los reconocidos fotógrafos **Julián Ochoa** y **Santos Moreno Villar**. Hasta el Santuario de Grabarka en Polonia nos llevará **Xavier Ferrer Chust**.

Las exposiciones colectivas, presentan las fotografías del **Trofeo Argizaiola**, "concurso de concursos" organizado por la Federación Vasca de Agrupaciones Fotográficas. También enseñamos hacia donde mira el **Grupo de Fotografía del Club Deportivo Eibar**, que este año necesita tres salas y toda la plaza de Untzaga para mostrar sus obras.

Además instalaremos un **Estudio fotográfico al aire libre** y os invitamos a participar en el tradicional **Rally Fotográfico**.

**Eibarko Klub Deportiboa / Club Deportivo Eibar**
Toribio Etxebarria, 16-1. - 20600 EIBAR-GIPUZKOA-
Tel: 943 20 19 04 Fax: 943 20 87 46
www.deporeibar.com e-maila: argazkilaritza@deporeibar.com

# ARGAZKILARITZA TAILERRA / TALLER DE FOTOGRAFIA

***Tokia:*** **EIBAR. Bista Eder. PORTALEA. Areto Nagusia**

## "Konposizioari buruzko hizketak"

## Irakaslea: JOSE BENITO RUIZ

*Argazkilari profesionala eta idazle aditua naturan eta bere kontserbazioan. Hamabost liburu kaleratu ditu gai horien inguruan. Gaur egun natura argazkilaritza arloko nazioarteko lehiaketetan sari gehien irabazi duen argazkilaria da Espainian.*

*Bere irudiak berrogei herrialde baino gehiagotan argitaratzen dira, hainbat agentzia bitarteko erabiliz, National Geographic Magazine USA edo Geo Internacional moduko izen handiko komunikabideetan. Gaur egun mundu mailako hainbat argazki proiektuetan egiten du lan. Irakaskuntza da egilearen kezka handienetako bat eta horrek bere islada du baliabideak sortzeko egiten dituen zeregin guztietan.*

***Tokia:*** **EIBAR. Bista Eder. PORTALEA. Areto Nagusia**

Eguna: **maiatzak 18**
Ordutegia: 19:00-20:00
Ikus-entzunezkoen proiekzioa eta
natura argazkilaritzari buruzko hitzaldia.

Eguna: **maiatzak 19**
Ordutegia: 10:00-14:00 & 16:00-20:00

**Konposizio intentsiboa.**
Konposizioari buruzko kontsiderazioak.
Ikus-sintaxia, artearen alfabetoa.
Espresio-indarrak eta ikus-inpaktua.
Ikus-narratiba.
Argazki-lengoaia eta pintura-lengoaia.
Konposizioari buruzko teoria berriak.
Proiekzio aplikatuak.



DOAN
**Izen-ematea zabalik martxoaren 30etik.**
Plaza mugatuak. E-maila bidali behar da izena emateko: argazkilaritza@deporeibar.com

# TALLER DE FOTOGRAFIA

## Taller impartido por JOSE BENITO RUIZ

*Fotógrafo profesional y escritor especializado en la naturaleza y su conservación. Autor de quince libros sobre estas temáticas.*

*Actualmente es el fotógrafo español más premiado en concursos internacionales de fotografía de naturaleza.*

*Sus imágenes se publican en más de cuarenta países a través de diversas agencias en medios tan prestigiados como National Geographic Magazine USA o Geo Internacional. En la actualidad trabaja en varios proyectos fotográficos de ámbito mundial.*

*La docencia es una de las grandes inquietudes del autor, que se plasman en una gran actividad de creación de recursos.*

## Diálogos sobre composición"

**Lugar: EIBAR. Bista Eder. PORTALEA. *Salón de Actos***

Eguna/*Día*: **maiatzak 18 mayo**
Ordutegia/Horario: 19:00-20:00
Proyección de audiovisuales y charla sobre fotografía de naturaleza.

Eguna/*Día*: **maiatzak 19 mayo**
Ordutegia/Horario: 10:00-14:00 & 16:00-20:00

**Composición intensiva.**
Consideraciones sobre composición.
La sintaxis visual, el alfabeto del arte.
Fuerzas de expresión e impacto visual.
Narrativa visual.
Lenguaje fotográfico y lenguaje pictórico.
Nuevas teorías sobre composición.
Proyecciones aplicadas.

*ASISTENCIA LIBRE*
**Inscripción abierta desde el 30 de marzo**
Plazas limitadas. Es necesario enviar un e-mail para apuntarse:
argazkilaritza@deporeibar.com



# erakusketak-exposiciones

## JOSE BENITO RUIZ

Alicante, 1966

## PORTALEA

maiatzak 4-27 mayo

Ordutegia / Horario : Asteartetik Igandera 18:30etatik - 20:30etara
Martes a Domingo de 18:30 - 20:30h.

### "Konposizioari buruzko hizketak"

Ikusle preziatua: erakusketa hau ez-ohikoa da hainbat motiboengatik, batez ere ahalegin hezigarriarekin batera erakusteko nahia ere agertzen duelako. Irudiek, modu agerian edo ez hain agerian, konposizio balore batzuk ilustratzen dituzte, eurekin doazen testuetan horretan sakontzeko aukera eskaintzen duten bitartean.
Irudi guzti horiek Italian sortutako eta sorreratik bertatik berarekin bat egin nuen "Only RAW" korrontearen premisei jarraituz egin dira. Bat bera ere ez dut aldatu harrapaketa fitxategitik: kamarak hartu zuena besterik ez dira, irudi guztiari mailen doitze erabiliz aplikatutako kontrastatu arin batekin.
Jakintza bestelako arte klasikoetatik datorkigu, batez ere pintura eta arkitekturatik, egi bene-benetakoak dakarzkigutenak baitira, gauzen zergatia adierazten dutenak.
Natura munduaren argazkilaritzan, bidaiariaren espiritu naturalista, zientifikoa eta humanistak artistaren espresioarekin egiten du bat, azken honek eskaintzen duen artea, bere lengoaia, bere formulazioak eta bere gramatika ulertzeko ahaleginarekin. Artearekin ezikusiarena eginez ezin da arterik egin.

---

### "Diálogos sobre composición"

Apreciado espectador, esta es una exposición atípica por varios motivos, principalmente por tener un afán formativo a la par que expositivo. Las imágenes ilustran de forma más o menos evidente algunos valores compositivos sobre los que se puede profundizar en los textos que la acompañan.
Todas estas imágenes han sido realizadas bajo las premisas de la corriente "Only RAW" surgida en Italia y a la que me adherí desde su origen. Ninguna de ellas ha sido alterada desde el fichero de captura: son exactamente lo que la cámara captó, con un ligero contrastado aplicado a toda la imagen mediante el ajuste de niveles.
El conocimiento nos llega desde el resto de artes clásicas, especialmente la pintura y la arquitectura, que nos traen las verdades aplastantes, el porqué de las cosas.
En la fotografía del mundo natural se dan cita el espíritu naturalista, científico, humanista, del viajero y la expresión del artista, aquel que busca comprender el arte, su lenguaje, sus formulaciones, su gramática. Ignorando al arte no se puede hacer arte.

www.josebruiz.com

# SANTOS MORENO VILLAR

Puerto de Sagunto (Valencia) 1967

## PORTALEA

maiatzak 4-27 mayo

Ordutegia / Horario : Asteartetik Igandera 18:30etatik - 20:30etara
Martes a Domingo de 18:30 - 20:30h.

## "Kubako arima"

Kuban egin dudan nire azken lana da, 2010eko irailean eta urrian burututakoa. Aukera izan nuen bertan zuzenean kubatarren bizikide izateko, euren etxeetan egoteko eta hain xaloa eta eskuzabala den herri horri egokitu zaion errealitatea bizitzeko eta aurrez-aurre sentitzeko. Hemezortzi egunetan, Kubako Santiagotik La Habanaraino izan nintzen, Bayamo, Manzanillo, Camaguey, Morón, Santa Clara, Cienfuegos, Trinidad eta Pinar del Río-tik pasatuta.
Kubako arima zuri-beltzean egindako lana da, haur, zahar, nekazari etabarren berrogeita hamar erretratuekin osatutakoa. Guztiak oso era zuzenean egindakoak, angeluhandi lente batekin, eta argazki bakoitzaren aurretik erretratatutako pertsonekin hitz eginda eta enpatia sortuta.

---

## "Alma de Cuba"

Es mi último trabajo fotográfico realizado en Cuba, entre los meses de septiembre y octubre de 2010. Donde tuve la oportunidad de convivir de forma directa con los cubanos en sus propias casas y sentir de primera mano la realidad en la que este pueblo tan afable y generoso, le ha tocado vivir.
Dieciocho dias, desde Santiago de Cuba a La Habana, pasando por Bayamo, Manzanillo, Camaguey, Morón, Santa Clara, Cienfuegos, Trinidad y Pinar del Río.
Alma de Cuba es un trabajo en blanco y negro, compuesto de cerca de cincuenta retratos de niños, ancianos, campesinos etc. Todos ellos realizados de una forma muy directa, con una lente gran angular y donde antes de cada fotografía ha existido un diálogo y una empatía con las personas retratadas.

www.santosmoreno.com



# XABIER FERRER CHUST

Vila-real (Castelló) 1958
2011. INDALECIO OJANGUREN" OHOREZKO SARIA ARGAZKI BILDUMA ONENARI
Premio de Honor a la mejor Colección en el XXIV Concurso Indalecio Ojanguren 2011

## PORTALEA

maiatzak 4-27 mayo

Ordutegia / Horario : Asteartetik Igandera 18:30etatik - 20:30etara
Martes a Domingo de 18:30 - 20:30h.

## "Grabarka" (Polonia)

Poloniako komunitate ortodoxoarentzat, Grabarkako Santutegia da gurtzeko gune garrantzitsuena. Bielorusiarekin muga egiten duenetik gertu, eliza hori Poladsieko zonalde historikoan dago eta bertako tontorra euren Ama Birjinari ohore egitera abuztuaren 19aren bakoitzean milaka erromesek bertaraino eramandako egurrezko milaka gurutzez dago inguratuta.
Bertako tradizioak dioenez, errekaren urak, sendatzeaz gain, garbitu ere egiten du; hortik dator erromesek erabilitako mukizapiak ur-bazterrean edo adarretan lagatzeko ohitura, atzean uzteko izandako gaixotasunak eta egindako pekatuak.
Grabarkako Kristoaren Itxuraldatzearen jaian ez dira bakarrik erritu erlijiosoak egiten: meza sakratuarekin, Poloniako Eliza Ortodoxo Burubakarraren Sinodoko kideek emandako Liturgia Handiarekin batera, badira beste erritu profanoak ere. Mendiaren oinetan, merkatarien talde batzuk hainbat geraleku paratzen dituzte, objektu erlijiosoak, publikazioak eta fruta saltzeko.

---

## "Grabarka" (Polonia)

Para la comunidad ortodoxa de Polonia, el Santuario de Grabarka es su mayor centro de culto. Cerca de la frontera con Bielorusia, en la histórica zona de Poladsie se alza esta iglesia, cuya cima esta circundada por millares de cruces de madera portadas hasta el lugar por los peregrinos que cada 19 de Agosto acuden por miles a honrar a su Virgen.
La tradición reza que el agua del arroyo no sólo es curativa sino que también purifica, de ahí que los peregrinos abandonen los pañuelos usado en la orilla o en las ramas, dejando atrás de sí las enfermedades y los pecados.

La festividad de la Transfiguración de Cristo de Grabarka, no sólo consta de ceremonias religiosas como la misa sagrada, la Gran Liturgia, que es oficiada por los miembros del Sínodo de la Iglesia Ortodoxa Polaca Autocéfala, sino que también de ceremonias profanas. Al pie de la montaña grupos de comerciantes montan paradas en las que venden objetos religiosos, publicaciones y fruta.

www.xavierferrer.com



## JULIAN OCHOA

San Fernando (Cádiz), 1961

## TOPALEKU. ARRATE KULTUR ELKARTEA

Maiatzak 4 mayo - ekainak 3 junio

Ordutegia / Horario: Astelehenetik Ostiralera 19:00etatik 21:00etara
Larunbatetan eta igandetan: 12.00 -14.00h. y 19.00-21.00h
Lunes a Viernes: 19:00 - 21:00h.
Sabados y domingos: 12.00 -14.00h. y 19.00-21.00h

### "Kuba"

Benetako paradisua argazkilari dokumentalarentzat. Bitan izan naiz *Irlan* eta esperientzia, argazki arloan zein maila pertsonalean, ezinhobea izan da.
Argazki ekipo arinarekin ibiltzen naizenean ia beti argazki mordoa ateratzen dut. Horra hor kontraesana: ekipo handia eramaten dudanean, teorian aurrean dudan ezer ez galtzeko, ziur aski pisuarengatik edo bestelako erabakiengatik, baina beti nire argazki uzta urriagoa izaten da. Bidaia-argazkilaritzan, asko kostatzen zait zenbatekoa izango den eraman beharreko ekipoa erabakitzea eta, gehienetan, azken erabakia irten aurreko egunean hartzen dut.
Betidanik harritu nau *argazkiak* berarekin daraman oroitzapen ahalmenak. Irudi bakoitzari begiratzen diodanean, espazio/denboran bidaiatzen dut. Nire oroimenera bueltatzen dira izenak, anekdotak, usainak… eta bakarrik giza harremanek eman dizkigukeen amaierarik gabeko esperientziak.
Kuba, galdutako paradisua, arraro eta aldi berean gertuko koktela, musika, ura, tabakoa ronarekin, izerdia eta alaitasuna lagun dituena.

---

### "Cuba"

Todo un paraíso para el fotógrafo documental. Dos viajes he realizado a *La Isla* y la experiencia, fotográfica y personal, no ha podido ser mejor.
Casi siempre cuando voy *ligero de equipaje fotográfico*, suelo realizar muchas fotografías. He aquí una contradicción: Cuando llevo mucho equipo, en teoría para que no se me escape nada, posiblemente, debido al peso o a determinadas decisiones, siempre mi cosecha fotográfica es menor. En la fotografía de viajes, me es difícil determinar el equipo adecuado para llevar y la mayoría de las veces, la decisión final es tomada un día antes de partir.
Siempre me ha sorprendido el poder de evocación que conlleva *la fotografía*.

Observo cada imagen y me traslado en el espacio / tiempo. A mi memoria regresan nombres, anécdotas, olores .... y un sinfín de experiencias que únicamente el contacto humano nos puede proporcionar.
Cuba, paraíso perdido, cóctel extraño y cercano con mezcolanza de música, agua, tabaco con ron, sudor y alegría.

www.julianochoa.com



# 31 Trofeo ARGIZAIOLA Lehiaketa

Maiatzak 1-31 mayo

## DEPOR -EIBARKO KLUB DEPORTIBOA

Ordutegia / Horario : Astelehenetik Igandera 11:00etatik 22:00etara
Lunes a Domingo de 11:00 - 22:00h.

Argizaiola Saria Euskadiko lehiaketetako irabazleen arteko lehiaketa da, Euskal Herriko Argazkilaritza Elkarteen Federazioak antolatzen duena. ARGIZAIOLA saria Euskal lehiaketen munduko adierazgarririk aipagarriena izan zen urte askotan, baina berau ahultzerakoan, behintzat oinarritzen zen kontzeptuak indarra galtzean, paréntesis txiki batean erori zen berriro indartsu bueltatzeko 1995. urtean. 2012 honetan, honakoak dira ARGIZAIOLArako lehiaketa sailkagarriak.

- BEASAINGO HIRIA (MENDIA ETA NATURA)
- BEASAINGO HIRIA (IGARTZA)
- BERGARA HIRIA ARGAZKI LEHIAKETA
- BERGARAKO KIROL ARGAZKI LEHIAKETA
- DERIOKO ARGAZKI LEHIAKETA
- DONOSTIAKO GIPUZKOA NAZIOARTEKO SARIA
- DONOSTIAKO MARQUES DE ROCAVERDE SARIA
- LEGAZPIKO LEGAZPI HIRIA
- LEGAZPI HIRIA (SIDERURGIA)
- EIBARKO INDALEZIO OJANGUREN ARGAZKI LEHIAKETA
- IRUNGO "IRUNGO HIRIA" ARGAZKI LEHIAKETA
- "ONCE" ARGAZKI LEHIAKETA (BILBAO)
- ORDIZIAKO NICOLAS LEKUONAREN ARGAZKI LEHIAKETA

El trofeo Argizaiola es el concurso de los ganadores de concursos de Euskadi, organizado por la Federación de Agrupaciones Fotográficas del País Vasco.El trofeo ARGIZAIOLA fue durante años el máximo exponente de la concursística vasca, pero al decaer la misma, cuando menos el concepto en el que estaba basada, cayó en un pequeño paréntesis para volver con renovada fuerza en el año 1995. Este año 2012, estos son los concursos clasificatorios para el ARGIZAIOLA.

www.federacionfotovasca.org




Iosu Garai

# Deportiboko ARGAZKILARITZA TALDEA

## "Erakusketa kolektiboa / colectiva"

Maiatzak 1-31 mayo

**AMBIGU & Taberna PORTALEA & Centro Social UNTZAGA ARETOA**

Maiatzak 12 mayo

**UNTZAGA PLAZA**



Hau geraezina da!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

"Eibarko Klub Deportibo Argazki Taldea" hazi besterik ez da egiten, geratu barik, eta ez bakarrik bazkide kopuruan –hor baita ere- baizik eta euren lanak aurkezten dituzten, erakusketak prestatzen dituzten, lehiaketetan parte hartzen duten eta sariak irabazten dituztenei begira.
Talde-lan iraunkorraren eta ondo egindakoaren fruitua da. Borondatezko lan horretan batzuk beste batzuk baino gehiago nabarmenduko dira, baina guztiek dihardute elkarlanean, bakoitza bere neurrian.
Betiko moduan, desiragarria izango litzateke lankidetza eta parte-hartze hori handitzea… baina noraino heltzeko? Guk nahi duguneraino.
Bestalde, krisia edozein arlotan nabari daitekeen honetan, gure artean, Taldean, zorionez eta, izatekotan, ekonomia arloan besterik ez dugu igarriko.
Hala eta guztiz ere, maila goreneko egitaraua prestatzeko gai izan gara beste behin, estatu osoko izen goreneko argazkilariekin, hor kokatuz ere gure Taldearen erakusketa kolektiboa.

Esto es imparable !!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!

El grupo "Eibarko Klub Deportibo Argazki Taldea" crece y crece sin parar, y no sólo en número de socios, que también, sino en número de fotógrafos que presentan sus obras, exponen, concursan y ganan premios.
Es el fruto del trabajo colectivo continuo y bien hecho. Trabajo voluntario en el que destacan más unos que otros, pero en el que todos colaboran cada uno en su medida.
Como siempre, sería deseable aumentar esa colaboración y participación para llegar …… ¿hasta donde?: hasta donde nosotros queramos.
Por otra parte la crisis se nota como en todos los campos, pero aquí, en el Grupo, y afortunadamente, sólo en el aspecto económico.
Y a pesar de todo, de nuevo hemos sido capaces de presentar un programa del máximo nivel con fotógrafos del más alto renombre de todas las partes del Estado, incluida esta nuestra exposición colectiva.
***JL Irigoien***

www.deporeibar.com/argazkia

## ERAKUSKETAK / EXPOSICIONES

| *Egilea/Autor* | *Data/Fechas* | *Lekua/Lugar* |
|---|---|---|
| **JOSE BENITO RUIZ**<br>*"Diálogos sobre composición"* | maiatzak 4-27 mayo | PORTALEA |
| **SANTOS MORENO VILLAR**<br>*"Alma de Cuba"* | maiatzak 4-27 mayo | PORTALEA |
| **XABIER FERRER CHUST** | -27 mayo | |
| **JULIAN OCHOA** | Maiatzak 4 mayo<br>Ekainak 3 junio | TOPALEKU. ARRATE KULTUR ELKARTEA |
| **31 Trofeo ARGIZAIOLA Lehiaketa** | Maiatzak 1-31 mayo | DEPOR -EIBARKO B DEPORTIBOA |
| *"Erakusketa kolektiboa / colectiva"* | Maiatzak 1-31 mayo<br>-<br>Maiatzak 12 mayo | PORTALEA Taberna<br>-ARETOA |

## TAILERRAK / TALLERES

| *Nahi duen guztiarentzat / Gra* | | |
|---|---|---|
| ***Argazki-estudioa kalean.*** | Maiatzak 12 mayo | |
| **Konposizio intentsiboa** | - | |

## RALLY FOTOGRÁFICO

| | | |
|---|---|---|
| ***Zuribeltzean eta Digitalean***<br>*Blanco y Negro y Digital* | Maiatzak 27 mayo | **Rally Irteera**<br>Salida del Depor |

## EGILEAK / AUTORES

José Benito Ruiz: www.josebruiz.com
Santos Moreno Villar: www.santosmoreno.com
Xavier Ferrer Chust: www.xavierferrer.com
Julián Ochoa: www.julianochoa.com
Trofeo Argizaiola: www.federacionfotovasca.org/?tag=argizaiola
Eibarko Klub Deportiboa. Argazkilari Taldea: www.deporeibar.com/argazkia

## ANTOLATZAILEAK ETA LAGUNTZAILEAK
## ORGANIZACIÓN Y COLABORADORES

Eibarko Klub Deportiboa/Grupo de Fotografía del Club Deportivo Eibar
Eibarko Udala/Ayuntamiento de Eibar
Ikatz
Arrate Kultur Elkartea -Topaleku
Centro Social Untzaga
Bar Ambigú
Taberna Portalea
Federación de Agrupaciones Fotográficas del País Vasco